

**HISTORIAREN FILOSOFIA 6**

1.- Materialismo kulturala, eta konkretuki ekonomiaren gorabehera, hartu dugunean hipotesis bezala historiaren filosofia bat desarroilatu dugu, zeinak universalki guztia ez badu esplikatzen behintzat oso fenomeno importanteak baditu argitzen, historia ekonomikoa kasu (orain arte, nik ondorioztatzen dut, izan gara gorabehera ekonomikoen jostailu, jakin gabe, ordua da ekonomia gobernatzen ikasten hasi gaitezen). Baina orain, filosofia hori oinarri harturik, galdetzen diogu geure buruari ea zer demontre egin, eta erabaki, daitekeen. Eta zientzia praktikoaren lurraldean sartzen gara bete betean, zeren, a posteriori jakin badezakegu, hutsuneak ditugun arren, garbi baitago ezen a priori ez dakigula, ez dugulako historiaren ezagutza unibersalik horretarako. Eta praktikoak izan behar gara derrigorrean, eta etika da lehen zientzia praktikoa, eta etika soziala, edo politika, bigarren zientzia praktikoa.

Garbi dago ezen nik ez dudala panazearik problema guztiak konpontzeko, problema konkretu baten inguruan egin ditut nire ikerketarik gehienak, problema ekonomikoaren inguruan, eta problema inportantea da zeren gaitzaren kausa orokorra privazioa baldin bada, gaitz ekonomikoaren kausa izan behar baita privazio ekonomikoa. Eta privazio ekonomikoak, nire teoriaren arabera, eta termino etikoak erabiliz, zekenkeria du eragiten (gerrara, konfliktora, iristeraino). Eta hor gaude vi-

cio baten estudioan bete betean. Eta etika katolikoan horrek badu bere lekua, eta ordenakin estudiatzen ahal da. Eta ni zentratua nago vicio horren ikerketan.

Marxek problema ekonomikoa universal bihurtu zuen, eta oker teorizatu zuen horren konpontzean paradisia iragarri zue-  
nean. Baina Marx da usuraren ikertzailerik inportanteena orain arte, eta usura (joera akumulatiboa) dagoenean Marxen estudioak ezin laga daitezke albo batera, zeren fenomeno horren konprenitzea marxismoak teorizatu baitu ondoen, nik hutsuneak deskubritu badizkiot ere ( jatorrizko kausaren estudioarik ez dute marxistek, eta nik bai). Nire teoria ere marxismoaren ondoren eraikia da, eta marxismoa ezagutuz, marxista ez den arren, materialista dialektikoa ez den arren (nik marxismoan teorizatutakoari galdetzen diot ea zergatik kultura batzuk jozen duten joera akumulatibora eta zergatik besteek ez, eta marxistek ez dakite horri erantzuten, eta nik bai; honela erantzuten dut, joera metatzailearen kausa nagusia privazio ekonomikoa da. Orientean gertatzen zena, adibidez, eta horrekin indikatzen dut soluzioa, etorkizun denaz ez badakit arren zer gertatuko den). Jakitun naiz ezen marxismoak garrantzi handia eduki duela sortu zenetik, hainbeste ezen teologia ere kutsatu duen , baina ni ez nago teoria politiko bat teologian sartzearen alde, eta ez nago askapen teologiaren alde, izan daiteke bat betiko teologia monoteistaren aldekoa, gu kristatutasunetik, eta gero politikan ezkerrekoa, sozialismoaren aldekoa, teologia ikutu gabe. Eta nik, politika egiterakoan, lokalizatzen dut usuraren hastea, klase formazioen hastea, joera akumulatiboaren hastea, privazio ekonomikoa larria den zonaldeetan; batez ere historian ikasten dugu basamortuen inguruetan direla halako kulturak garatu. Hor hazi da zekenkeria, eta hor ikertu dira vicio horren kontrako neurriak, inportanteena delarik jabego pribatuaren deskubrimendu juridikoa, erromatarrek hainbeste desarroilatua. Baina jabego pribatuak zekenkeria, eta horren ondorio lazgarriak, alde batetik gelditu egin du, bai, baina bada baita zekenkeriaren era-

gilea ere historikoki, eta lanaren akuilu ere (gaurko gizakia ez da solidarioa, eta ez du besteendako lanik egin nahi, hortik Sobiet Batasunaren frakasoaren arrazoietakoa bat). Eta nik sentimendu gazigozoak ditut jabego pribatuaz. Ez da niretzat soluzio definitiboa, niretzat ekonomiaren gorabeheren jostailu izan beharrean, eta kultura politiko orientalean hori gara, ekonomia gobernatzen ikasi behar dugu. Eta hala ere seguritate osorik ezinezkoa da beti kosmos material honetan.

Marxismoa erabilgarria daiteke zientzia politikoan (ez da nire irudiz filosofia oso bat, hobe da aristotelismo aktualizatu bat horretarako, baina politikan badu bere lekua marxismoak), diot nik, usura eta joera akumulatiboa agertzen denean, eta balekoa da joera redistributiboa nagusitu arte (eta historian zehar, Jainkoak nahi duen arte, sarritan gertatu daitezke joera aldatzeak). Hori diot nik, zeren marxismoan teorizatzen den komunismo paradisiako hori niretzat idealismo materialista da, idealismo dialektikoa, falaziazkoa dena, logika dialektikoa bezala, ez kontradikzioaren printzipioa, zientzia egiteko ezinbestekoa, ignoratzen duelako. Baina, berriro diot, bada balekoa politikan, batez ere joera akumulatiboa agertzen delarik, hor analisis ekonomiko marxista, ekonomia politiko eta hola, balekoa da.

2.- Historiak baditu estudiatzen kulturak oparotasunean joera birbanatzailea, redistributiboa, eskuzabala, garatu dutenak, eta kultura bakezaleak dira, eta ez patriarkalak sarritan. Eta horrek erakusten du, gure hipotesiari jarraiki, ezen badela posible, oparotasunezko kondizioetan, baketsua den zivilizazioa garatu. Beraz, nik oparotasuna bilatzea daukat eginbehar inportantetzat (jakinik orain arte ez garela gure historian ekonomiaren gorabeheren jostailu baizik izan, gobernari izan beharrean). Sozialismoa (joera birbanatzailearen nagusitzea, joera eskuzabalaren nagusitzea), gizarte baketsua, soilik halako baldintzetan garatzen ahal da nire teoriaren arabera. Eta joera birbanatzailea nagusituz gero arazo nazionalak ere errezago konponduko ahal dira. Hori, niretzat behintzat, begien bistan dago.

Nik arazo nazionalentzat proposatzen dut ONUren normatiba, hau da autodeterminazioaren eskubidea, baina hori aplikatzea lagatzen dut batere arazorik ez dagoenerako.

Gaur egun nik konbatitu egingo nuke zientzia politikotik zekenkeria, joera akumulatiboa, sozialismo moderatuak (moderatu bai, baina ez aberatsen morroi izateraino, eta bai sendoa) bultzatzen dituen neurriekin, adibidez, seguritate soziala bultzatuz, seguritate sozial indartsua, lanaren eskubidea efektiboa eginez denean, eta hori planeta osoan. Hor agerian geratuko litzateke zenbateriano den gure zivilizazioa oparoa, ala, nik uste dudan moduan, pobrea, eta horren ondorioz akumulatiboa, eta gerrazale eta patriarkala. Eta hor ageriko litzateke oparotasunaren problema, niretzat zentrala dena estudiantzen dugun arazo honetan.

Eta problema da zeren oparotasunean gizakia historikoki alfertu izan delako (hori beste hipotesis bat izan daiteke beste historiaren filosofia bat garatzeko modukoa), eta alferkeriak dekadencia dakar, eta hortik ondorioztatzea ezen behar beharrezkoa dela lanaren kultura bat aurrera egin nahi bada. Baina soilik oparotasunean konpontzen ahal da zekenkeriaren arazo etiko politikoa, izanik oparatusuna bilatzen duen sozialismoa horren soluzioa. Sozialismo horrek ez badu ere zertan jabego pribatuaren inguruko legedia ezereztatu, eta permititu ere dezake jabego pribatua, merkatu ekonomia, ezten bezalako bat baitaitezke legearen barruan lan egiteko gogoia edukitzeko (etorkizun batean, joera birbanatzailearen bidean bagoaz, jakina, kontzeptu horiek aberastuak izan daitezke definizio zehatzagoekin, baina etorkizun dena ez dakigu zein izango den, beraz, gero gerokoa). Zeren dirudienez elkartasuna ez baita nahikoa, gaur egungo sozialismoetan ikasi ahal izan den moduan, gogorik pizteko lanaren alde, gizakia kultura metatzaillean oso zekena baita, eta hori ezin da egun batetik bestera aldatu. Eta galdera inportantea da ea nola demontre egoera opa-roetan (demografian ere eragin daiteke, zeren gehiegi bagara

gaitzagoa baita oparotasun kondizioak lortzea), nola demontre egoera oparoetan, non historikoki gizakia eskuzabala bihurtzen den, eta baita alfertu ere egiten den, mantentzea lanaren kultura bat, eta ez erortzea horrela eta bai aurrera egitea. Hori da nik lantxo honetan (sei artikulurekin osatua) lagatzen dudana interrogante handia.

3.- Komentarioak hamaika egiten ahal dira guzti horretaz, eta bat egingo dut amaitzeko. Sozialismo moderatua proposatu dut (sendotasunez erreformak bultzatzen dituena, eta hori da niretzat bide egokiena zeren bakean garatzen ahal baita, demokrazian adibidez, eta ejerzitoek errespetatuz demokrazia), baina jada jakituriatzko liburuetan bada esaten nola gobernu gaiztoek amaiera ez desiatuak edukitzen dituztela usuenean, eta bata izan daiteke iraultza, zeinaren posibilitatea nik ez baitut ukatzen. Beraz, nik, gaur egun, nire teoriak ontzat hartzen dituen sozialismo erreformistarekin bat egiten dut, baina, haiek esaten dutenaren kontrara, ezin dut ukatu, logika garbian, iraultzaren posibilitatea ere. Modu aunitzetan kenduak izaten ahal dira poteretik politiko gaiztoak, baina iraultzak nola eta zergatik gertatzen ahal diren Aristotelesekin ere estudiatu zuen. Leninek iraultza zientifikoaz ere hitz egiten zuen, eta, Julio Cesarren moduan, harek bazekien atzera egiten.

4.- Eta lektoreak ikasi behar du, amaitzeko, nola nik etika katolikoan estudiatzen den vicio baten inguruan soilik zentratu naizela nire lehen historiaren filosofian, eta bigarreanean alferkeria hartu dut hipotesizat. Vicio eta bekatu askoz gehiago daude (harrokeria ere aipatu dut, adibidez, eta horregatik proposatzen dudana sozialismoak joera aristokratikoa izan beharko lukeela deritzot, harrokeriazkoa ez dena niretzat), vicio eta bekatu askoz gehiago daude, ordenatua dagoela haien estudioa, eta hor ere lana ez da makala, izanik helburua ezagutza unibersala, hau da, perfekzio morala, zeina ezinezkoa den kosmos honetan, nahiz eta betebehargarria den hobetzea bilatzea, bistan dago.

Beraz, ezin esan daiteke lanik ez dagoela. Izan ere, behar beharrezkoa da aurrera egiteko lanaren kultura bat edukitzea (zeren soilik oparotasunean posible baita joera redistributiboa nagusitzea, eta oparotasuna lanak dakar).

Nire zientzia politikoaren zirriborroak ondorioztatu ditut bi vicioen inguruan hipotesien bitartez historiaren filosofia bi eginenez (eta hirugarren bat ere laburki trazatu dut, harrokeria). Gehiago egiten ahal dira metodo horrekin. Baina nahikoa da muestra honekin.

Soilik erranen dut gauzatxo bat zientzia politikoaz. Etorkizun dena indeterminatua zaigu, ezin dugu jakin (soilik dakigu zerbait etorkizunaz eskriturretan arakatuz, beraz, abadeak beharrezkoak dira faroa gal ez dezagun, eta ikas dezagun beti Jainkoaren beldur sano bat edukitzen, ez patologikoa), eta horregatik da zientzia politikoa zientzia praktikoa. Baina etorkizun denaz, zientzia politikoaren barruan, egon daiteke beste zientzia bat, eta eskubide guztiekin izan daiteke zientzia, eta nik zientzia horri deitzen diot zientzia fikzioa. Suposamenetan oinarrituko litzateke, gertatzen ahal diren kasuak estudiantuko litzuzke, asko problematikoak, hau da, erabakia gaitza egiten da halako kasuetan. Ez da bakarrik, orain arte izan den moduan, entretenigarri bat, zientzia ere daiteke izan. Eta niretzat bada.

5.- Sozialismo aristokratikoa proposatzen dut, baina nire lanetan arakatu duenak badaki ezen niretzat, eta ahal izan dudan ondoen demostratua dut, niretzat hoberenaren alde egotea Jesusen alde egotea da, eta alde ikaragarri gainera da Jesus hoberena, beraz sozialismo aristokratiko hori nik bihurtzen dut sozialismo kristaua, eta soluzio horrekin katoliko diren sozialistek ba ahalko dukete eduki partidu bat euren demokrazian bere jokoa egingo lukeena eta bere indarrak neurtuko litzuzkeena, eta aldi berean katolikook ez genuke zertan ibili behar kontzientzia problemekin politikan ezkerrekoak garenean, abortuaren kasuan ikusten den moduan, edo suicidioa “ezke-

rretik” justifikatzerakoan, eta hola. Helburua?, izango litzateke zibilizazioaren joera ekonomiko nagusia aldatzea, eta joera akumulatibotik igarotzea, dagoen eskarmentua aintzat harturik, joera redistributivoaren nagusitasunera, bidean hain inportantea den lanaren kultura hori galdu gabe. Nahikoa da.

*Roman Garmendia*